

Ebazpena, 2018ko otsailaren 15koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendariarena, kontsumitzaileen elkarreentzako diru-laguntzen deialdirako eskaerak aurkezteko epea luzatzekoa

Diru-laguntzen eskaerak aurkezten uzten ez duen arazo tekniko bat dela eta, eskaerak aurkezteko epea luzatzea beharrezkoa da. Deialdia 2017ko abenduaren 29ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen eta hurrengoa da:


Ebazpena, 2017ko abenduaren 20koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baita kontsumitzaileen elkarreentzako funtzionamenduko, laguntza juridikoko eta kontsumo-proiektuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak ematea.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko otsailaren 15ean amaitzen denez eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikularekin bat etorritz,

EBAZTEN DUT

- 1.- Aipatutako diru-laguntzetarako eskaerak aurkezteko epea luzatzea. Eskaerak aurkezteko epemuga berria 2018ko otsailaren 23a izango da.
- 2.- Ebazpen hau egoitza elektronikoan argitaratzea.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko otsailaren 15ean



Nora Abete García
Kontsumobideko zuzendaria